Araugintza
I. ikastaroa



5. saioa
Aditz Sintagma

Arauen laburpena
Ohiko akatsak

Ariketak

EUSKARAREN IRAKASKUNTZARAKO
BALIABIDE ZENTROA

Mokarte parkea z.g.
31620 Uharte. Nafarroa
948 361093 Fax: 948 361092

Aurkibidea

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra 3
ADITZ SINTAGMA: ARAUEN LABURPENA 4
"Adizki alokutiboak (hikako moldea)" 4
"Arazi" 4
"Aditzoinen forma" 5
"Ekartzea merezi du" 6
"Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu)" 6
"Topiko bihurtu" 7
ADITZ SINTAGMA: ARIKETAK 8
-arazi 8
Aditzoina 10
Indikatiboa 11
Baldintza 12
Ahalera 12
Subjuntiboa 12
Agintera 13
"Gonbidatu, itxoin, itxaron, deitu, lagundu, bihurtu" aditzak. 13
Topiko bihurtu 15
Ekartzea merezi du 15
OHIKO AKATSAK: TEORIA 16
OHIKO AKATSAK: ARIKETAK 18
Normalki, legalki.../ normalean, legez... 18
Aditzaren aspektua 18
Aditzoina 20
-zki- pluralgilea 20
Adizki batzuen amaierako -ke 20
Nominalizazioa 21

Aditz Sintagma. Ariketa orokorra

Hauta ezazu erantzun zuzena. Bakarra aukeratu behar duzu

1. Ondoko hauetan, zein da Euskaltzaindiak hobetsi duena?
   a) Xabierrek nahiago izan zitik hik erositako barazkiak.
   b) Xabierrek nahiago izan ditik hik erositako barazkiak.
   c) Xabierrek nahiago izan dizkik hik erositako barazkiak.
   d) Xabierrek nahiago izan zizkik hik erositako barazkiak.

2. *Irakasleak "Kixote Mantxako" liburua osorik...*
   a) irakurtarazi digu.
   b) irakurrarazi digu.
   c) irakurri arazi digu.
   d) irakur arazi digu.

3. Zein da zuzena?
   a) Zuk zeuk ere erabil ahal duzu programa hori.
   b) Zuk zeuk ere erabil dezakezu programa hori.

4. Zein da zuzena?
   a) Merezi du sanferminetara joatea.
   b) Merezi du sanferminetara joateak.
   c) Pena merezi du sanferminetara joateak.

5.

5.1. Zein da zuzena?
   a) Mikeli bakarrik gonbidatu diote afaltzera.
   b) Mikel bakarrik gonbidatu diote afaltzera.
   c) Mikel bakarrik gonbidatu dute afaltzera.

5.2. Zein da zuzena?
   a) Bostak arte itxarongo dizuet.
   b) Bostak arte itxarongo zaituztet.

5.3. Etxeraino lagundu.... **(<u>Zein EZ da zuzena?</u>)**
   a) ninduzuen.
   b) nintzaizuen.
   c) zenidaten.

5.4. Hirurak aldera deituko... **(<u>Zein EZ da zuzena?</u>)**
   a) dizuet.
   b) zaituztet.
   c) natzaizue.

6. Zein da zuzena?
   a) Kristok ura ardoan bihurtu zuen.
   b) Kristok ura ardotan bihurtu zuen.
   c) Kristok ura ardoa bihurtu zuen.
   d) Kristok ura ardo bihurtu zuen.

ADITZ SINTAGMA: ARAUEN LABURPENA

“Adizki alokutiboak (hikako moldea)”

(14. Araua, 47. or.)

Lehen-lehenik, erran beharra dago aditz alokutiboen parte bat baizik ez duela finkatu Euskaltzaindiak, **hikako** moldeari dagokiona, hain zuzen ere. Zukako adizkera alokutiboek, ekialdeko euskalkietan bereziki erabiltzen direnek, batu gabe segitzen dute, beraz, oraino.

Euskaltzaindiaren lana adizkeren forma finkatzea izan da, eta ez da sartu erabilera arazoetan. Jakina denez, korapilo asko ditu erabilerak.

Asti falta dela eta, ikastaro honetan arau hau ez da landuko. Hala ere, interesa duenak 14. araura jotzea besterik ez du adizki batuak aurkitzeko.

“Arazi”

(23. araua,125. or.)

1) Aditz "arazleak" eratzeko, *arazi* aldaera erabili, ez *erazi*. Salbuespen bakarra *adierazi* da.
2) Aditzoinari lotua idatziko da beti *arazi: harrarazi, erorarazi, iraunarazi, hilarazi, betearazi, galarazi, geldiarazi, ezagutarazi, nabarmenarazi, ihardetsarazi, inarrosarazi.*
3) Zenbait aditzen aldaera *t*-dunak, hots, *sortarazi, agertarazi* eta kidekoak, *sorrarazi, agerrarazi* eta kidekoak bezain zilegizkotzat hartzen dira.
4) *Arazi*-ren aurreko aditzoina “a” bokalaz amaitzen baldin bada, “a” biekin bat egingo da: *aldarazi, benedikarazi, jokarazi, koordinarazi, obligarazi, sozializarazi.*

"Aditzoinen forma"

(28. Araua, 147. or.)

Aditzoinak erabili behar direnean, nola jokatu behar den erraten du Euskaltzaindiak:

a) Normalean aditzoina eta partizipioa bereizi egiten dira: ***ikasi*** (partiz.) / ***ikas*** (adoin.), ***bildu*** (partiz.) / ***bil*** (adoin.)...
   - *Izugarri ikasi nuen iaz egindako ikastaro hartan.*
   - *Aurtengoan ere ikas dezaket.*

b) Hala ere, aditza beste kategoria batetik datorrenean (*gizon / gizondu, ilun / ilundu, ur / urtu...)* ***–tu*** atzizkia ere erabil daiteke aditzoinean (hots, *ur* eta *urtu* biak har daitezke aditzointzat).
   - *Mendi tontorreko elurra ur (urtu) dadin, eguraldi epelagoak nahitaezkoak dira.*
   - *Ni guztien aurrean lotsa (lotsatu) eta gorri (gorritu) nadin ahaleginduko zara.*

c) Aditzoinen forma afrikatua denean, ezinbestean eutsi behar zaio forma afrikatuari:
   - ***Nahi izanez gero, oraintxe bertan huts dezakegu botila.*** Eta ez **hus dezakegu.*
   - ***Zuri eramanen dizkizut artaziak zorrotz diezazkidazun.*** Eta ez **zorroz diezazkidazun.*

d) Aditzoin bukaerak "-i" amaiera berezkoa duenean (jalgi, iraungi, ebaki, jaiki, iguriki...), "-i" hori ez da galduko:
   - ***Hartu artazi hauek errazago ebaki dezazun.*** Eta ez **ebak dezazun.*
   - ***Jalgi hadi plazara!*** Eta ez **jalg hadi.*

   Amaierako "-i" hori berezkoa ez duenean, ordea, bestela jokatuko da. Hots, galdu eginen da "-i" hori. Hala nola:
   - ***Has hadi serio lanean eta ikas ezan gehiago!*** Eta ez **hasi hadi* eta **ikasi ezan.*
   - ***Non utz dezakegu txosten hau?*** Eta ez **utzi dezakegu.*

   Salbuespenak dira: *"itxi", "eutsi"* eta *"iritzi"* aditzak. **"Itxi"** aditzak eutsi egin behar dio amaierako "-i" horri. **"Eutsi"** eta **"iritzi"** aditzak bietara erabil daitezke. Hona hemen adibideak:
   - *Itxi ezazue ate hori!*
   - *Euts (eutsi) diezaiogun bizirik geure hizkuntzari!*
   - *Nork iritz (iritzi) diezaioke gaizki ekimen horri?*

e) Ondoko kasu hauetan bakarrik onartzen da "-t" aditzoinaren amaieran:
   - Aditz eratorria denean: *laket / laketu; ausart / ausartu; bat / batu...*
   - Literatura-tradizioan jokabide bakarra izan duten aditzetan: *ezagut, lot, ohart...*
   - "-di" amaiera duen oinarri batetik eratorritakoetan: *hant (<handi), ert (<erdi).*

f) Gainerakoetan "-t" gabe idatziko da: *urrun* edo *urrundu* (baina ez **urrunt*), *lagun* nahiz *lagundu* (baina ez **lagunt), neur, ezkon,* etab.

"Ekartzea merezi du"

(31. Araua, 169. or.)

Merezi izan/ukan aditzaren osagarria aditz bat denean, absolutiboa erabiliko da, eta ez ergatiboa:

- *Merezi du sanferminetara joatea* (eta ez **joateak*).
- *Ikastea merezi du* (eta ez **ikasteak merezi du*).

"Zenbait aditzen erregimena (gonbidatu, iguriki, itxoin, itxaron, deitu, lagundu)"

(39. Araua, 211. or.)

- ***Gonbidatu.***

Aditz honek, NOR-NORK sailekoa denez, "du" eskatzen du, eta ez "dio":

- *Mikel afaltzera gonbidatu dute* (eta ez **gonbidatu diote).*
- *Andregaiak bere etxera gonbidatu nau* (eta ez **gonbidatu dit).*

- ***Iguriki, igurikatu.***

Aditz hauek ere "du" eskatzen dute, aspaldidanik NOR-NORK nagusitu baita:

- *Batak bertzea igurikatzen zuen.*

- ***Itxoin, itxaron.***

Aditz hauen erabilera:

a) Objektua dagoenean, NOR-NORI-NORK saileko aditza erabiliko da:
   - *Hementxe bertan itxarongo diot Xabierri.*
   - *Lierniri ere itxaron zioten.*

b) Objekturik ez dagoenean, NOR-NORK saileko aditza erabiliko da:
   - *Alfer-alferrik itxaron dute goiz osoan.*

- ***Deitu.***

Bi eratara erabil daiteke, NOR-NORK edo NOR-NORI-NORK saileko aditzez:

- *Mikel deitu dugu* edo *Mikeli deitu diogu.*

- ***Lagundu.***

Bi eratara erabil daiteke hau ere, NOR-NORK edo NOR-NORI-NORK saileko aditzez:

- *Pozik lagunduko nioke Mikeli etxeraino* edo *Pozik lagunduko nuke Mikel etxeraino.*
- *Nik neuk lagunduko dizut erosketak egiten* edo *Nik neuk lagunduko zaitut erosketak egiten.*

"Topiko bihurtu"

(40. Araua, 217. or.)

- *"Bihurtu"* aditzak mugagabean eskatzen du predikatu osagarria:
  - *Ura ardo bihurtu zuen* (eta ez **ura ardoa bihurtu zuen).*
  - *Topiko bihurtu da* (eta ez **topikoa bihurtu da).*

- Predikatu osagarri horretan izenaren alboan ingurukariren (adjektiboa, izenlaguna...) bat agertzen denean, ordea, artikulua eskatzen du maiz. Kasua beti absolutiboa izanen da:
  - *Edurnezuri erreinuko emakumerik ederrena bihurtu zen.*

ADITZ SINTAGMA: ARIKETAK

-arazi

egin araziko
Orain ariketa batzuk eginaraziko dizkigu irakasleak
egin eraziko

A. Eman ondorengo aditzen arazlea

1. Ikusi: _____
2. Estali. _____
3. Ibili: _____
4. Ekarri: _____
5. Erosi: _____
6. Irakurri: _____
7. Idatzi: _____
8. Ikasi: _____
9. Eseri: _____
10. Jarri: _____
11. Utzi: _____
12. Itxi: _____
13. Erori: _____
14. Eraman: _____
15. Itxaron: _____
16. Atera: _____
17. Gorde: _____
18. Esan: _____
19. Egin: _____
20. Bete: _____

B. Baietz asmatu!!

1. Zein da okerra?
   a) sorrarazi
   b) agerrarazi
   c) adierazi
   d) desagertuarazi
2. Zein da zuzena?
   a) jakinerazi
   b) adierazi
   c) ekarrerazi
   d) emanerazi
3. Zein dago ongi idatzita?
   a) emanarazi
   b) eman arazi
   c) emanerazi
   d) eman erazi
4. Zein da zuzena?
   a) irakurtarazi
   b) kenduarazi
   c) sinetsiarazi
   d) irakurrarazi

C. Bete ezazu ondoko taula, adibidean bezala

Aditza	**Arazlea**	**Sinonimoa**	**Sinonimoaren arazlea**
Apurtu	Apurrarazi	Hautsi	Hautsarazi
Apurtu			
Atzeman			
Ikaratu			
Iritsi			
Igorri			
Gogoratu			
Onetsi			
Ohartu			
Pasatu			
Erantzun			

Aditzoina

A. Berridatz itzazu ondoko esaldiak agintera erabiliz

Adib. : *Begi bistatik alde egiteko eta hemen berriro ez agertzeko esan didazu.*
Alde egin ezazu nire begi bistatik eta ez zaitez berriro hemen ager!

1. Aneri geroago deitzeko erran didazue.
2. Dirua hartzeko eta amatxiri nahi dudana erosteko erran didate.
3. Musu handi bana emateko eskatu didate.
4. Ogi gutxiago eta gazta puska lodiagoa emateko eskatu dizuet.
5. Ahalik eta lasterren etortzeko eskatu digute.
6. Idazkaritzara jaisteko eta haurra neurekin ekartzeko agindu dit zuzendariak.
7. Guztiok adiskide onak izatea opa digu lanean hasi berria den zuzendaritza taldeak.
8. Ikasgelara sartu bezain agudo, esertzeko eta liburuak irekitzeko agindu digu filosofia irakasleak.
9. Trena zer ordutan etorriko den galdetzea gomendatu digu izebak.
10. Haurrari eskuak garbitzen laguntzeko agindu dit ikasketaburuak.
11. Nire irizpidea lankide guztiei azaltzeko esan dit zuzendariordeak.
12. (Guk zuek) autoz etxeraino eramateko eskatu diguzue.
13. Bere inguruan esertzeko eskatu digu maisuak.

B. Aditzoina (ahalera)

Alda itzazu ondoko esaldietako aditzak ahalerako adizkiak erabiliz

Adib.: *Saiatzen bazarete, nahi duzuena lortu ahal izango duzue.*
Saiatzen bazarete, nahi duzuena ***lor dezakezue****.*

1. Barkatu, Josu, baina autoz eramaten ahal nauzu etxera?
2. Sentitzen dut, baina gu ez gara egoera horretan bizitzen ahal.
3. Nahi izanez gero, zuek jatekoak ekartzen ahalko zenituzkete eta nik prestatzen ahalko nituzke.
4. Zure esku utziz gero, edozein astakeria esaten ahal diozu.

C. Aditzoina (subjuntiboa)

Jokatu gabe dauden adizkien ordez erabil itzazu jokatuak

1. Hirurak baino lehen itzultzeko esaten didate gurasoek.
2. Egunkaria irakurtzea gomendatu dizuete irakasleek.
3. Birritan eskatu digu ez errateko berari gezurrik.
4. Herriko eraikuntza zaharrenei argazkiak ateratzeko agindu digu batzordeak.
5. Atzo garaiz heldu nintzen, lagunak ez haserretzeko.

Indikatiboa

Osa itzazu esaldiok orainaldian eta iraganean

1. Nik zuek ez...../ ..... inoiz gorrotatu.
2. Gurasoek jostailu politak erosi ..... / ..... seme-alabei.
3. Zu bakarrik etorri ..... / ..... niri bisitan.
4. Zuek gu ez ..... / ..... oso gogoko.
5. Azkar samurtu al ..... / ..... zuri eztula?

Baldintza

Osa itzazu esaldiok dagokion adizkia tartekatuz

1. Zinea zuri gustatuko ....., gehiagotan joango .....
2. Haiek ni benetan ezagutu ....., ez ..... aukeratuko.
3. Nagusiari soldata igoera eskatu izan ....., lan handiagoa egitea eskatuko ..... berak.
4. Bizilaguna zerbait galdetzera etorriko ..... zuri, antzarrak ferratzera bidaliko .....
5. Otsoa artaldera sartu ....., izugarrizko triskantza egingo .....

Ahalera

Osa itzazu esaldiok hiru ahalera motak erabiliz

1. Horrela edozein bizi ..... / ..... / .....
2. Nik ez ..... / ..... / ..... inola ere adiskideei gezurrik esan.
3. Sendagileak berehala ken ..... / ..... / ..... niri burutik obsesio hau.
4. Guk, behartsuak izanik, nekez eman ..... / ...../ ..... dirurik.
5. Eraman al ..... / ...../ ..... zuek ni etxera beribilez?

Subjuntiboa

Osa itzazu esaldiak orainaldiaz zein iraganaz baliatuz

1. Gezurra erran nizun, erruki ..... / .....
2. Korbata korapila ..... eskatu dizut.
3. Zakurrak zaunkarik egin ez ..... sar zaitezte isil antzean.
4. Atezainari eskupekoa eman genion egunkaria ekar ..... / .....
5. Lasai bizi ...../ ..... eskatu zizueten adiskideek.

Agintera

Osa itzazu esaldiok

1. (Zu) etzan ..... eta lo egin ..... lasai.
2. (Zuek) etor ..... eta ikus ..... haurrak lotan.
3. Jan nahi baduk, egin ..... lan.
4. Kontuan har ..... (zuek): gogoko tokian aldaparik ez.
5. Ezkondu baino lehen, (hark) begira ..... / ..... zer egin behar duen.

"Gonbidatu, itxoin, itxaron, deitu, lagundu, bihurtu" aditzak.

A. Euskaratu

1. Mirari me ha invitado a cenar.
2. Esperad hasta que venga el profesor.
3. Esperad al profesor sentados.
4. Te llamaré esta tarde.
5. Llamaremos a Iñaki desde tu casa.
6. Ayer esperamos hasta las cinco de la madrugada.
7. Ayer te esperamos hasta las cinco de la madrugada.
8. Te ayudaría encantada.
9. Nos habéis ayudado a aprobar el examen.
10. Nos habéis acompañado hasta casa.
11. Ese mago ha convertido las cartas en pañuelos.
12. En dos años se convirtió en el mejor jugador de fútbol del equipo.
13. A base de trabajar mucho, Irati se ha convertido en una buena traductora.

B. Aukeratu

1. Zein dago oker?

a) Gonbidatuko dizut afaltzera.

b) Pilotalekuan itxarongo dizut.

c) Bostak aldera deituko dizut.

d) Etxeraino lagunduko dizut.

2. Zein dago oker?

a) Atzo bi orduz itxaron genuen geltokian.

b) Atzo bi orduz itxaron genizuen geltokian.

c) Kafea hartzera ere ez nion gonbidatu.

d) Kafea hartzera ere ez nuen gonbidatu.

C. Itzuli:

§ ¡Que nos invite ella a nosotros!

§ Enseguida vengo. ¿Me esperas aquí?

§ ¿Ayer os llamó Xabier a casa?

§ Todos los días me acompaña hasta casa.

§ En cuanto puedas, llámanos.

§ Os esperaré hasta las ocho. Si no podéis llegar a tiempo, llamádme al móvil.

§ El mago Txan convirtió el carbón en oro.

§ A veces los sueños se nos hacen realidad.

§ Se convirtió en la mujer más hermosa de estos alrededores.

Topiko bihurtu

Zein daude ongi eta zein gaizki?

1. Ume txikia etxeko jostailua bihurtu zaigu.
2. Musu ematean bihurtu zen igela printzea.
3. Txan magoak ikatza urretan bihurtzen zuen.
4. Eguna gau eta gaua egun bihurtu zen.
5. Adiskidea etsaia bihurtu zitzaion Joni.
6. Askotan, ametsak egi bihurtzen zaizkigu.
7. Emakumerik ederrena bihurtu zen.
8. Lehen baino zitalagoa bihurtu da.

Ekartzea merezi du

	Zuzena?	Okerra?
Ez du bizitzea merezi		
Ez du merezi kasurik egiteak		
Aipatzerik ere ez du merezi		
Hark ez du gurekin etortzea merezi		
Horrek ez du pena merezi		
Ez dakit merezi duen galdetzea		
Polita bada ere, ez du merezi joateak		
Merezi ote du hainbeste sufritzeak?		
Ez du merezi horretan tematzea		
Zerbaitek merezi badu, horrek merezi du!		

OHIKO AKATSAK: TEORIA

Aditzondoak sortzeko, "-ki" atzizkia gehiegi erabiltzeko joera dago. Adibidez:

??NormalKI ez dugu gosaltzen	*NormalEAN ez dugu gosaltzen*
??LegalKI ez dago ezer egiterik	*LegeZ ez dago ezer egiterik*
??Oso gogorKI kritikatu dute	*Oso gogor kritikatu dute*
??TeorikoKI ondo dago	*TeoriAN ondo dago*
??ZuzenKI jokatu dute	*Zuzen jokatu dute*

Aditzaren aspektua

a) Maiz, gaztelaniaren eraginez, etorkizunean gertatuko diren ekintzak adierazteko, aspektu ez-burutuaren **"-T(Z)EN"** marka erabiltzeko joera dago. Horren ordez, geroaldiko **"-KO"/"-GO"** edo **"-EN"** erabili behar dira. Mesedeak eskatzean edo proposamenak egitean gertatzen da hori, besteak beste. Adibidez:

*Zer ordutan irteTEN zara gaur?	Zer ordutan irtenGO zara gaur?
*JoaTEN gara kafe bat hartzera?	JoanEN gara kafea hartzera?
*Zer, hasTEN gara?	Zer, hasiKO gara?
*Noiz hasTEN da ikastaroa?	Noiz hasiKO da ikastaroa?
*Itxaron, oraintxe jarTZEN da!	Itxaron, oraintxe jarriKO da!

b) Sarri, gaztelaniaren eraginez, iraganean gertatutako ekintzak adierazteko, aspektu ez-burutuaren **"-T(Z)EN"** marka erabiltzeko joera dago. Horren ordez, aspektu burutua erabiliko dugu, normalean lehenaldikoa. Adibidez: iraganaren berri ematean, ez dugu erabiliko

*1945ean jaioTZEN da	1945ean jaio zen
*1968an lehen liburua argitaraTZEN du	1968an argitaratu zuen lehen liburua

Istorio, liburu edo filmen hari edo argumentuak azaltzean, ordea, zilegi da "***joaten da, ezagutzen du***" eta gisako aditz formak erabiltzea. Geroaldia ere erabil daiteke: "***Han ezagutuko du bere lagunik onena izango dena".***

Aditzoina dela eta

Izen edo adjektibo batetik eratorritako aditzetan bi forma onartzen dira aditzointzat. Adibidez:

- Zuritu, zuri
- Berritu, berri
- Lotsatu, lotsa
- Urtu, ur
- ...

Maiz akatsa egiten da **"-ts", "-tz"** eta **"-tx"**-z amaitzen diren izen edo adjektiboetatik eratorritako aditzen aditzoina ateratzean. Adibidez:

*Hust_ dezakezu poltsa?	**Huts / hustu dezakezu poltsa?**
*Zorroz_ ezazu aiztoa!	**Zorrotz / zorroztu ezazu aiztoa.**
*Artaziekin mozt_ daiteke.	**Artaziekin motz/ moztu daiteke.**

"-TU" kentzean, jatorrizko formara itzultzen dira.

-zki- pluralgilea

Zenbait euskalkitan ***"-ZKI-"*** pluralgilearen aurretik ***"I"*** jarri ohi da. Euskara batuan idaztean, komeni da Euskaltzaindiak gomendatutako adizkiak erabiltzea. Beraz, ***"I"*** hori sobera dago.

Adibidez:

*Hartu, amari eman diezaIzkiozun	**Hartu, amari eman diezazkiozun**
*Utz iezaIzkiozu mahai gainean	**Utz iezazkiozu mahai gainean**

Zenbaitetan, pluralean ez ezik, singularreko adizkietan ere ***"I"*** tartekatu ohi da. Gogoratu ***"I"*** hori 3. pertsonan eta objektua singularra denean baino ez dela erabiltzen. Hona hemen zenbait adibide:

*Lagun diezaIdazun deitu dizut	**Lagun diezadazun deitu dizut.**
*Ordain diezaIgula espero dut.	**Ordain diezagun espero dut.**

Adizki batzuen amaierako -ke

Aditz amaierako **"-**KE"-ren atzean atzizkiren bat eransten denean, "-e" hori bikoiztu egin behar da. Adibidez:

*Egin dezakeN guztia egin du	**Egin dezakeEN guztia egin du**
*Joan zaitezkeLA esan dute	**Joan zaitezkeELA esan dute**

-TE amaiera duten adizkiei zerbait erantsi behar zaienean, ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Adibidez:

*Egin dezaketeen guztia egin dute	**Egin dezaketen guztia egin dute**
*Joan zaitezketeela esan dute.	**Joan zaitezketela esan dute**

OHIKO AKATSAK: ARIKETAK

Normalki, legalki…/ normalean, legez…

Nola erraten dituzu hauek euskaraz?

1. Normalmente suelo ir andando
2. Legalmente no se puede hacer nada
3. Le han criticado muy duramente
4. Teóricamente está bien
5. Han actuado correctamente

Aditzaren aspektua

A. Nola erraten dituzu hauek euskaraz?

1. ¿A qué hora sales hoy?
2. ¿Salimos a comer algo?
3. ¿Qué? ¿Empezamos?
4. ¿Cuándo empieza el cursillo?
5. Espera, que ahora mismo se pone.

B. Zuzendu itzazu akatsak hurrengo testuetan

Iturralde Suit, Juan. Idazle, historialari eta artista nafarra (Iruñea, 1840 – Bartzelona, 1909). Ingeniari-ikasketak egiten hasten da, baina osasun arazoengatik utzi egin behar izaten ditu. Bordelen merkataritza, eta Parisen marrazketa eta pintura ikasten ditu. Iruñera itzulita, euskararen atzerakadak erabat kezkatzen du. Garai hartako egoera kaskarrari aurre egiteko, erresumako foruak, independentzia eta euskararen garrantzia aldarrikatzeko intelektualez osatutako korrontea sortzen da Nafarroan. Bigarren Karlistaldia amaitutakoan, *Asociación Eúskara de Navarra* taldea sortzen du Iturralde Suitek eta *Revista Eúskara* aldizkariko zuzendaria da (1878-1883). Orduko aldizkari anitzetan parte hartzeaz gainera, Euskal Herriko historiaurreaz eginiko lehenengo ikerketak burutzen ditu. Pinturarako zaletasun handia du. Idazle oparoa da eta literatur genero asko lantzen ditu. Parisen igarotako denboran erromantizismoaz kutsatuta, historiaren eta artearen ikuspegi erromantikoa azaltzen du bere obretan (*Las grandes ruinas monásticas de Navarra).*

HEZIKETARIK EZ

Patxiku Txikik eta bere lagunek Elizondon hartzen dute Iruñerako autobusa. Oronotzen jende saldoa sartzen da eta leporaino betetzen da. Sartzen direnen artean, bada emakume heldu eta lodi bat. Berau, zuzen-zuzenean, Patxiku Txiki eserita dagoen lekuaren parean geratzen da, berari begira, eta esaten dio:

-Gure garaian, zu bezalako gazte bat altxatuko zen, ni eser nendin.

Eta Patxikuk erantzuten dio:

-Zuen garaian, beharbada, bai; baina gaur egun gutxienez bi eserleku behar dituzu.

Aditzoina

Nola erraten dituzu hauek euskaraz**?**

1. Pela las patatas, por favor
2. Quieres que me avergüence
3. ¿Puedes vaciar esta caja?
4. ¡Afilad el cuchillo!
5. Se puede cortar con las tijeras

-zki- pluralgilea

Nola erraten dituzu hauek euskaraz?

1. Tómalos, para que se los des a tu madre
2. Déjaselos encima de la mesa
3 Te he llamado para que me ayudes
4. Espero que nos lo pague.

Adizki batzuen amaierako -ke

Nola erraten dituzu hauek euskaraz?

1. Todo lo que puede hacer, está hecho.
2. Todo lo que pueden hacer lo tienen hecho.
3. Han dicho que te puedes ir.
4. Han dicho que os podeis ir.

Nominalizazioa

Bete itzazu hutsuneak dagokion nominalizazioa erabiliz

1. Lagunek beraiekin _____ / _____ (joan) erregutu digute.
2. Bihar zinemara _____ (joan) nahi nuke.
3. Film horrek merezi du _____ (ikusi).
4. Matematika eragiketa batzuk _____ (egin) ahaztu zait, berreketak adibidez. Aspaldi utzi nion _____ (ikasi).
5. Banoa hemendik, ez baitizut bestela _____ (ikasi) utziko.
6. Ikasleari etxerako ariketak _____ (egin) ahaztu zaio.
7. Euskara behar bezala _____ (ikasi) denbora eta gogoa beharrezkoak dira.
8. Tabakoa _____ (erre) ez du batere mesederik egiten.
9. Guk hemendik _____ (alde egin) nahi dute.
10. Guk hemendik _____ (alde egin) nahi dugu.
11. Osasunak aski du gol bat _____ (sartu), txapeldun _____ (izan).
12. _____ (edan) ondorioak kaltegarriak dira.
13. Telebista _____ (itzali) esan didate.
14. Zer edo zer _____ (jan) noa taberna horretara.
15. _____ (edan) eman dio.
16. _____ (esan) _____ (egin) bazagon aldea!
17. Elizan _____ /_____ (sartu), Aitaren egin behar da.
18. Ez nintzen hori guztia _____ / _____ (esan) ausartu.
19. Mantsoago _____ (ibili) agindu dio.
20. Lan hau albait azkarren _____ (amaitu) esan didate.
21. Hobe dugu isil-isilik _____ (egon).
22. Behin eta berriz ahalegindu gara lan hori behar bezala_____ (egin).
23. Nik ez dakit txistua _____ (jo).
24. Hamabi eta erdietan _____ / _____ (bazkaldu) ohituta gaude.
25. Ez nuen nahi, baina hori _____ (egin) behartu naute.
26. Bazkalostean kafetxoa _____ (hartu) ohitura daukat.
27. Irabazitako guztia _____ (galdu) arrisku bizian gaude.
28. Ni ez naiz hori _____ (egin) gauza.
29. Azkenekoa _____ (izan) lehenengoa _____ (izan) igaro da.
30. Tranpa _____ (egin) ez dizu ezer onik ekarriko.
31. Heldu bezain laster, ekin omen zion etxea _____ (garbitu).
32. Gauzak behar den moduan ez _____ (egin) errua zurea da.